

## ELKARTEAREN ESTATUTUAK

### LEHENENGO KAPITULUA

#### IZENA

1. artikulua.-

1982ko Azaroaren 20an AS.R.P.G.01417 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako Azpeltiko **JUAN DE ANTXIETA MUSIKA ESKOLA** ELKARTEaren Estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteel buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoen arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteel buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

#### ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.-

Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

- Edozein adinetako zaletuei zuzendutako musika eta dantza formazioa eskaintzea.
- Kontzertuak eta musikarekin zerikusia duten beste edozein eratako jarduerak antolatzea, herriko beste ekitaldi eta jai zehatzen elkarlanean arituz
- Kultur nortasunaren gune izatea, herriko eta eskualdeko ohiturak zabaldu eta mantentzeko lan eginez.
- Eskolako jardueren garapena indartuko duten musika ekitaldi eta lehiaketen parte hartzea, bai musikan baita dantzan ere.
- EAEko zeln kanpoko beste zentro batzuekin harremanak garatzea, eskarmentu eta jardueren elkartrukea bultzatzeko.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

#### ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.-

Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da: PERDILLEGI KALEA 1 - AZPEITIA- GIPUZKOA

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

#### LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.-

Elkarte honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere zereginak: AZPEITIA- GIPUZKOA. EAE era edo kanpora ere zabal dezake bere jarduna, hori eskatzen duten helburuak betetzeko

#### IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAU

5. artikulua.-

Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

### BIGARREN KAPITULUA



JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
Elkarteen Erregistroa

REGISTRO DE ASOCIACIONES  
Y ADMINISTRACION PUBLICA

## AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK



6. artikulua.-

Eikartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraukorra.

JUSTITIA ETA HERRI  
ADARREN AILAK  
Elkartem Eregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registros

### BATZAR OROKORRA

7. artikulua.-

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- Elkartearen jardura-plan orokorra onartzea.
- Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- Estatutuak aldatzea.
- Elkartea desagitea.
- Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaloke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.-

Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.-

Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: lehenengo hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.-

Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % 30(e)k eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolahi ere, honako gaiak aztertze eta erabakitzeko bilduko da:

- Estatutuak aldatzeko.
- Elkartea desagiteko.

11. artikulua.-

Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.-

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo sollez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak balezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo kualifikatua beharko da (balezko botoak ballozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko:

- Elkartea desagitea.
- Estatutuak aldatzea.
- Ondasunak erabili edo besterentzea.
- Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkari izatea. Ordezkari hori idatziz eskuordetu beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino gutxienez bi ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkari izateko beste norbaiten esku utzeko agiria postaz bidali dezakete.

#### ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzendaritza-jarraitzaile elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: Lehendakaria, Idazkaria, Diruzaina, Hiru bokal arruntak, bi bokal irakaslegoaren ordezkari bezala eta bokal bat ikasleen ordezkari moduan. Azpitiko udalaren kultura batzordearen ordezkari bat aholkulari gisa, hitzarekin baina botorik gabe

Gutxienez hileroko bildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian, edo, tarteka bost aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoltzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek hiru urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz ballogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- Erakundeko bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- Agintealdia bukatzen denean.
- Dimisitzen baldin badute.
- Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua ballogabetzea erabakitzen duenean.
- Hiltzen baldin badira.

"a)" idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua utzeko arrazoiak, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoiak, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osakeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorriz eta haren kontrolpean.
- Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- Gastu eta sarreraren arteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onartu ditzan.

- d) Batzar Orokorrenen bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunel erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutu eta hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- g) Batzar Orokorrek berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehlengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

#### KIDE BAKARREKO ORGANOK

##### LEHENDAKARIA

22. artikulua.- Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrek hartutako erabakiak gauzatu ditzu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

23. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorrenen bilera-deiak egin, bilera bukaturat eman, bilerean sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Ballotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrek berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

##### IDAZKARIA

24. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburu zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkartearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuaren eta artxiboen edukia egiatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.


##### DIRUZAINA

25. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorri, hark onartu ditzan.

##### BOKALAK

26. artikulua.- Bokalak, beharrezkoa denean, zuzendaritzako kideak ordezkatuko dituzte, eta Lehendakariak agindutako eginkizun zehatzez arduratuko dira.

27. artikulua.- Irakasleen ordezkariek honako eginkizunak dagozkio:



- a).- Zentroko irakaskuntzaren ardura pedagogikoa eta Batzorde pedagogikoaren bozeramale izatea.
- b).- Irakasleen zuzendaritza eta koordinazioa.
- c).- Ikasle zein irakasleen ordutegiak prestatzea bai eta, disziplina araubidea ere.
- d).- Musika tresnak, material didaktikoa, altzariak eta lokalak zaintzea.
- e).- Ikasturteko gorabeheren, emaltzen eta arazoen berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari horrek egiten dituen bileretan, eta uneoro lehendakariari.

28. artikulua.- Ikasleen ordezkariari dagokio Zuzendaritza Batzordean ikasleen ekimen bozeramale izatea.

### HIRUGARREN KAPITULUA

#### BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

29. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.
- Elkarte honetako ikasle diren haurren guraso edo tutoreak.
- Irakasleak edo adin nagusiko ikasleak beti ere Batzar Orokorrak onartzuz gero.

Pertsona juridikoak izanik, organo eskudunak baliotasunez hartutako erabakiaren kopia aurkeztu beharko dute eta, bertan, elkartea eratu nahi dutela eta ordezkari gisa norik jardungo duen adierazi beharko dute.

30. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta lehendakariari zuzenduta. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakloke Batzar Orokorrari.


#### BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

31. artikulua.- Bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- 1) Elkarreei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Elkarrearen gobernu- eta ordezkari-organoen osaerari, elkarrearen kontu-egoerari eta elkarrearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkarrearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoei parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarrearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkarrearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

32. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organoei baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.



### BAZKIDE IZATEARI UZTEA

33. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desgitea).
2. Bazkidea bere borondatez joatea.
3. Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

### ZIGOR-ARAUAK

34. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoituz egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahaliko zaio Batzar Orokorrari.

35. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten bada, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaiolke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espeditenteari hasiera ematea erabaki dezake.

36. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio Interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, Interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espeditenteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsua ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espeditentea aurkeztuz gero, idazkariak espeditentearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagozkion erabakia har dezan.

37. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori **Interesdunari** jakinarazi behar zaio. **Interesdunak**, eskubideaz baliatuz, auzitegietara **joan** ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.
38. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zalolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

### LAUGARREN KAPITULUA

#### ONDARE SOZIALA - ETA AURREKONTU-ARAUAK

39. artikulua.- Elkartearen ondare soziala 64.000.- eurokoa da. Altzariak, material pedagogikoa eta musika tresnek osatzen dutelarik.
40. artikulua.- Elkarreak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Sarrera-kuotak.
  - b) Erabakitzen diren aldirikako kuotak.
  - c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
  - d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharreko zatitza jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko Abuzturen 31(e)(a)n itxliko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatzuz (zerbitzuak ematea barne) elkarreak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili behar. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

### BOSGARREN KAPITULUA

#### ESTATUTUAK ALDATZEA



41. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.
42. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.
- Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.
43. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

### SEIGARREN KAPITULUA

#### ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

44. artikulua.- Elkarrea arrazoi hauengatik desegingo da:
1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.



2. Estatuetetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.



JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registro de Asociaciones

45. artikulua.-

Elkarte deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen Ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenei bati eman beharko zaio.

**AZKEN XEDAPENA**

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatuetako aginduak aldatuko.

<p>Estatutu hauek ikus-onesi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erakundearen Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen azterkaren 2013ko MAR 20ko Erregeriaren bidez horrekiko bati datozen gainontzeko arauetan zehazitutako ondorengotako.</p>	<p>Verdadero y correcto. Firmado por el efecto determinado en el Decreto 143/2013, de 20 de marzo de 2013, del Departamento de Justicia y Administración Pública, en el Registro General de Asociaciones.</p>
<p>2013 MAR 20 20... (e)ko ... (e)(a)n.</p> <p>ERROLDAKO ARDURADUNA AS.R.P.G. 141-</p>	<p>20 MAR 2013 ... de ... de 20...</p> <p>EL/LA ENCARGADO/A DEL REGISTRO</p>

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*



JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registro de Asociaciones